

tuenik behar, generoetan zehar transmutatzeko gai gara, barrerak eta gogoak emandakoa gara, trabestiak, bolle-
rak, superfemmeak, butchak, putak, transak, beloa da-
ramagu eta «wolof» hitz egiten dugul; sarea gara: talde
amorratu!

Matxinadari dei egiten diogu, kaleak hartzeari, blogak
hartzeari, desobedientziari, baimena ez eskatu beharra-
ri, aliantza eta egitura propioak sortzeari: ez gaitzen de-
fendatu, beldur ditzagun!!

Maitte zaituztegu

PutabollonegraTransFeminista Sarea

SINATZEN DUGU:

Medeak, Garaipen, La Aceña Del Frente, Itziar Ziga, Lolito Power,
Las Chulazas, Diana J. Torres AKA Pornoterrorista, Parole de Queer,
Post.op, Las maribolheras precarias, Miguel Misse, Beatriz Precia-
do, Katalli, MDM, Coletivo TransGaliza, Laura Bugalho, EHGAM,
NacionScratchs, IdeaDestroyingMuros, Sayak Valencia, TransFu-
sión, Stonewall, Astrid Suess, Alira Araneta Zinkunegi, Juana Ra-
mos, 7menos20, Kim Pérez (Cofundadora de Conjuntos Difusos),
d-generadas, las del 8 y et al, Beatriz Espejo, Xarxa d'Acció Trans-In-
tersex de Barcelona, Guerrilla Travolaka, Towanda, Ciclobollos,
O.R.G.I.A, Panteras Rosas, Trans Tornados, Bizigay, Pol Galofre, No
Te Prives, CGB, Juanita Márquez Quimera Rosa, Miriam Solà, Ningún
Lugar, Generatex, Sr. y Sñra. Woolman, Marianissima Airlines, As-
dúas, Oquenosaeadacona, Go Fist Foundation, Heroína de lo perité-
rico, Lola Clavo, Panaderas Sin Moldes, Señoría Griffin, Impacto
Nipón, Las Mozas de KNY, Kabaret Llibre de Mediona, Teresa Mari-
lla, ItulnAcción, Rodrigo Requena, Alba Pons Rabassa, Mery Esca-
la, Proyecto Transgénero Cuerpos Distintos, Derechos Iguales, Casa
Trans de Quito, TransTango, Patrulla Legal, Confederación Ecuato-
riana de Comunidades Trans e Intersex.

Basoerdi bat dela eta.

Maskulinitateari eta trabestismoari
buruzko historiak

Raquel (Lucas) Platero

Itzultzailea: Ainara Sarasqueta Alberdi

Gaur gauean «packing» a egitera ateratzea erabaki dut.
Baikortasunaren eta lerdentasunaren arteko nahaske-
ta honek, prakten eta galtzontziloen azpian daramadan
zakil prostetikoa gehituta, nire maskulinitatea erakusta-
raztera narrama. Ispilu aurrean apaindu dut neure burua.
Seriean dagozkidan bihurguneak ongi egokitu dituda-
la ziurtatu. Artetsuki nahastutako ilea agerian, berezi-
ki neurrira datorikidan alkandora beltz berrira... Bikain
nago, pentsatu dut irribarreari eutsi ezinik. Egia esan, ez
daukat planik, ez naiz ezagun batekin larrualdi bat iza-
teko bereziki prestatzen ari. Nire buruarentzako oparia
da, mugitzen naizenean ongi sentiarazten didana, nire
grabitate-zentroa eta jarrera berriz egokitzen dizkidana.
Bestalde, *agian ez naiz bakarra izango*—hori esaten diot
nire buruari—eta, dudarik gabe, ez naiz oharkabean pa-
sako.

Maria Elena gaur gauean «packing» a egitera aterako
ote litzatekeen galdetzen diot nire buruari, tabernaren
batean poteren bat hartuko ote genukeen, eta inguruko
neska interesgarriei azeri irribarrez begiratu. Zutaz da-
kidan guztia, María Elena, 1968. urteko polizia-fitxategi
frankista batean dago. 1954. urteko Alfer eta Gaizkileen

Legearen 6. artikulua¹ ezarri zizuten, eta polizia-*fixxate*-gian espediente-zenbaki bat zara, izen bat, eta zapaltzaileen hitz-jarioa. Victor Bedoya-*k*² espediente piloaren artean aurkitu duen horituriko paper sorta batean dago. Berez, ez dakigu oraindik bizirik ote zauden ere. Zer bait hartzerajateko trabestitzen jarraitzen ote duzun. Oraindik Katalunian bizi ote zaren. Baina, jakin badakigu zure historia garrantzitsua dena.

Zure izenari erreparatuz, María Elena, epaile eta funtzionarioek bioemakume³ bat zarela nabarmentzeko hartutako erabakia dela pentsatzen dut —beren ustez emakume bezala eraikiakiko gorputz bat—. Nik M.E. dei-

1 1954. urteko Alier eta Gaizkileen Legearen 6. artikulua, 20. zenbakia: «Homosexuali, proxeñetei eta malzurri, eskale profesionali, besteiei eskuan ibiliz bizi direnei, adingabeak esplotatzen dituztenei, buruko gaiztak dituztenei eta elbarriei honako neurriak ezarriko zaizkie, bata bestean atzetik betearaziz: a) Lan-eremu edota nekazaritza-kolonia batean sartzea. Segurtasun-neurri hori ezartzen zaien homosexualak Instituzio berezietan sartu behariko dira, eta besteia, besteengandik gutziz aldentu; b) Leku eta larrai-de zeharzetan bizitzeko debekua, eta bere bizilekua adierazteko beharra; c) Delegatuen zaintzari erabateko orzaintasuna».

2 Victor Bedoya historialariari bere lana eta aurkikuntzak nirekin partekatzean izandako eskuzabaltasuna eskertu nahi diot. Baita Antoni Ruiz ekintzaile historikoari ere, txosten hau aztertzeko interesa sustatzeagatik. María Elena N.G.-ren 296 txostena, Franco garaiko Barzelonan homosexualak bizi izan zuten errepresoari buruzko lkeketa batean bere osotasunean argitaratu da: José Benito Eres Riguera i-k eta Carlos Villagrasa Alcaide-*k* koordinaturiko *Homosexuals i transsexuals: els altres repressaliats i discriminats del franquisme, des de la memòria històrica* (Bellaterra, 2008) liburu kolektiboan, hain zuzen. Ikerketa hori Victor Bedoyak berak *Asociación de Ex-presos sociales* elkartearekin batera egin du.

3 Emakume bezala diagnostikatu izan den eta diagnostikarekin ados dagoen pertsona bat aipatzeko, egokiago da *cis* aurritzia erabiltzea, eta beraz, *cisemakume* esatea. Dena dela, Espainiako estatutan oraindik oso gutxi erabiltzen da aurritzki hori. Honela zehaztuko genuke zer den *Cis* edota *Cissexuala* izatea: jalo zenean diagnostikatu zioten sexuarekin ados eta eroso dagoen pertsona bati esaten zaio *cissexuala*. Aldiz, badira eslepen horrekin arrakalak bizi dituzienak, eta identitate-izendapen ezberdinetara molda daitezke, horien artean, *trans* terminoa edo beste batzuk erabiltz.

tuko dizudala uste dut. Garaikideagoa eta androginoagoa iruditzen zait. Ez dakit nola deitzen zizuten zure lagunek eta mailaleek, zure gurasoek edota konfiantzako pertsonak, baina gaur gauean, Madrilen, guretzat M.E. izango zara. Gainera, irudipena dut nire lagunak «Mario» deitu nahiko zizutela, baina ziur asko zuk zeuk aukeratuko zenuke zeuretzat izen egokia, zeure neurrikoa.

M.E., 21 urtetxo zentiuela 1968. urteko martxoaren 26ko gau batean ateratzen zinen bezala, larunbat gau honetan nire lagunekin aterako bazina, segur aski begiradetan erdiguinea izango zinateke —nahiz eta horretarako Clark edo ni bezalako «mutli»ekin lehiatu beharke zinatekeen—. Atxilotu zintuzten guardia zibilien arabera, zure garaiko emakumeentzat berezitutako eta derrigoritutako takoidun zapata, media eta kuleroen orde zaskibaloiko zapatilak, galtzerdiak eta galtzontziak janzen zituen norbait zara. Jantzera horrekin plazer handia sentitzen duzula gaineratzen dute... (galdetu al zizuten inoiz?).

Nire ustez, zure garaiari aurre hartu zenion. Zure saskibaloiko zapatilak nire lagun Clarkek beti daramatzan horiek bezalakoak dira. Herrikiideak izateaz gain, Hospitale-ekoak, ziur Clarkekin beste hainbat zaletasun ere partekatuko zentiuela. Clark, NANaren arabera Miriam, momentu zoragarria bizitzen ari da. Bere gorputza moldatzeko desiraz jabetzen ari da, indartsu eta gihartsu bihurtzen, bere buruaz duen irudira gerturatuz. Zer pentsatuko zenuke zuk horretaz, M.E.? Clarkekin gimnasia-ra joango al zinateke? Gorputza zure gustura moldatzea pentsatuko zenuke? Eztabaidatuko ote genuke gure neurriko «mutli»-janzkera non aurkitu? «travélo»ak gara, horixe da esateko dudak guztia. Zuek pentsatzen dut, Clarki begiratzen diot, eta ondoren nire buruari, eta gaur gauean oso ondo pasako genukeela uste dut, aukeratuta-

ko lekuan garena izaten lagunduko ligukeen elkarreliko errekonozimenduaz gozatzuz.

Zure ixuraren inguruko deskribapenak pisu handia du zure polizia-fitxan, eta horrek ohararazten digu zer zeneraman (eta zer ez) begiratzeaz arduratu zirela: galtzerdi famatuak, galtzontziloak eta saskibaloiako zapatilak. Gaur egun, galtzerdiak eta galtzak ez ditugu trabesitzeko modu bat bezala hartzen, aspaldidanik ez baitira soilik mutilentzat, eta emakumeen gehiengoak erabiltzen ditu. Agian, horietaz frankismo garaiko bestelako bizipen eta oroitzapenak dituzte gure amek... baina, eta galtzontziloak? Zer gertatzen da galtzontziloak erabiltzen badituzu? Jaitzez gizon ezarritakoentzat al dira bakarririk? Nire amak hori garbi dauka. Zure atxilotetatik 40 urte igaro diren arren, arropak genero-arauen ezaugarria izaten jarraitzen du, egokia zer den eta beharrezko salbuespenak zehaztuz. Gaur gauean, aldatutako munda bat ikusiko zenuke eta azaldu egin beharko genizuke baietz, hala dela, baina ez dela horrenbeste ere aldatu. Arau-haustea zigortu egiten dira oraindik; sarritan, gure maskulinitateak maila onargarria gainditzen badu, nabarmendu egiten digutela; oraindik badirela zigor sozial eta psikologikoak, kartzelan sartzen ez bagaituzte ere. Espainiako estatuari behintzat ez. Ikusiko zenuke zenbait gizon interpelaturik sentitzen direla maskulinitate modu «akastun»-en aurrean, gizon izanez dabilen iruzurtibat aurkitzean, zigortu egin nahiko dutela. Hori ez da ezer berria, ez da horrenbeste aldatu, zuk ondo dakizun bezala.

Basoerdi bat edatera atera zinen Hospital-eko La Gran Cava-ra, Conde del Asalto kaleko 25. ean dagoen ta-bernara, gaur gauean Clark eta nik Madrilgo erdigunean egingo dugun bezala. Auzoko biogizonekin berriketaldi ozenean irudikatzen zaitut ukondoa barraren gainean duzula, eta herrikideek nola begiratzen zizuten irudika-

tzen saiatzen naiz. Clarkekin eta nirekin, sarritan, ezin asmatuta dabilta: bi mutil gay ote garen; bi emakume oso maskulino, eta, beraz, txirlajale; edota besterik gabe, bi pertsona xeble ote garen, ezin asmatuta. Ezinbestean begiradak lotu zitzaizkizun, M.E., ezin izan baitzen oharakabea gizontzat pasa; konturatu egin ziren eta, segidan, Kuartelera eraman zintuzten. Atxiloteta Guardia Zibila egin zuen eta 1968. urteko martxoaren 26an Atarazanas-eko komisaldegira eraman zintuzten. Ondoren, Alfer eta Gaizkileen epailearen aurrean agertu behar izan zenuen, eta zutaz honako hau idatzi zuten:

Fue detenida (...) en actitud sospechosa y vestida de hombre. Carece de antecedentes, manifestando que no se dedica a actividad alguna, viviendo de las caridades que le hacen y algunas veces haciendo donaciones de sangre. Dice que se viste de hombre para así poder enganar a las mujeres hacia las que siente una irresistible inclinación.⁴

(...) gizonetzoz jantzita eta jarrera susmagarria zuela atxilotu dute. Ez du aurrekaririk eta lan-jarduerarik ez duela dio, batzuetan odola emateari esker edota jendeak eskainitako laguntzari esker bizi da. Esaten duenez, eutsi ezinezko grina sentitazten diote emakumeek, eta horiek engainatzeko jantzen da gizon tankeran.

Epailearen eta Estatuaren errepresioaren aurrean, zu, María Elena N.G., *gizonez trabesitutako emakume* bat zinez, jendartearentzat arriskutsua den norbaiten ekintza susmagarri bihurtu zen taberna batera zerbait

⁴ Itzultzailearen oharra: itzultzeaz gain, adierazpenak bere horretan ere agertzea erabaki dugu, lekukotasun horren berrituzena ere emateko.

hartzera ateratzea. Eta ez hori bakarrik, gainera, «emakumeak engainatzea» zenuen helburu. Haien logikaren barruan, emakume horiek ezin zuten libreki erabaki zurekin lotzea, gezur baten ondorioz baizik.

Sexu, sexualitate eta genero hirukotea erabat mugatua zegoenez, argi dago emakumeak ez zirela tabernetara joaten testuinguru historiko hartan, ezta gizonezkoentzat mugatuta zeuden espazioetara ere. Ezinezkotzat hartzen zen batzuen eta besteen espazio, jarrera edota ezaugarriez ez jabetzea, eta hortaz, arauak hausten bazenituen nahita egiten zenuen, transgresiorako borondata zenuelako, eta horregatik, zigorra merezi duzu, ez bakarrik jendaratearen zigorra, baita Estatu biolentziaren zigorra ere.

Zure garaian, emakumeak amak eta emazteak ziren, *olzanak* eta *umilak* izaten ikasten zutenak; familiaren giltzari nagusiak ziren, estatu ahul baten batasuna bermatzeko ezinbestekoak, eta, horretarako, beharrezkotzat zuten II. Errepublikak ahalbidetutako espazio publikoetatik emakumeak kanporatzea (Pineda, 2008). Hori horrela, emakumeek heterosexuakal besterik ezin zuten izan, jendarte- eta politika-makineria faxista irauarazteko funtsezko partaideak. Ezkontzaren eta amatasunaren bidea jarraitu nahi ez zuten emakumeek komentua, eromena edota besteen zerbitzurako ezkongabetasuna zituzten aukera bakarizat. Edota bestela, jendaratearentzat pertsona arriskutsu bihurtzea, urdanga, gaizkile.

Gizonek, bestalde, estatuak abertzale fideleentzat idatzitako gidodia jarraituz, familia-burruak, langileak eta ondasun-hornitzaileak izatea zuten helburu. Gizonezkoak paterfamilia eta hornitzailearen jarrera anbibalente batean eraikitzen ziren, eta, beraz, jarrera menderatzailea zuten emaztearekin eta seme-alabekin; eta, aldi berean, meneko ziren Estatu autoritarioaren aurrian, posizio

feminizatuago agertuz. Jendarte horretan, kideetasun militar eta gerrazalearen ingurumarian, faxismoari lotutako maskulinitatea gorapatzen zen gorputz gazte, uniformatu eta gihartsuen irudiak zabalduz (Pérez Sánchez, 2007). Homoerohikara gerturatzen zen estatu-kultura batean bizi zinen, espazio/gune zeharo berezituak eginez kontrolatu behar zen homosexualitatea eta bere *kutsa-kortasunaren* arriskua —Antonio Sabater Tomas epai-leak bere testuetan eta LRPS-ren idazkietan erabiltutako terminoa—. Zure garaioan, turismoak eta hiritartasunak jendarte-kontrola gutxitzea ekarri zutenez, moral galera horren aurka altxatu zen frankismoa, eta horretarako, frankismoaren eugenesiak heterosexulitatea sustatzen zuen pertsona egokien jaiotza bideratzeko (Monferrer-Tomás, 2003: 182).

Zu ezin zinen emakumea⁵ izan. Emakumeak ez dira tabernara joaten basoerdi bat hartzera, ezin dute gizonekin parekide gisa aritu. Ez zenuen zaindu beharreko familiarik. Ez zitzaizun senarrik ezagutzen —bazenuen mutil-lagun bat, baina marixua zen, eta zuribideztat hartu zen—, eta ez zenuen lanik ere. Zaintzaileen begiradapean, zure gorputzak nabari uzten zuen gizonezkoa ere ezin zinela izan. Pentsatzekoa da bazenuela zerbait nabarmen uzten zintuena, edota norbaitiek salatu zintuela; edo akaso zure trabestismoa ez zen horren sinesgarria gizonaekotzat agertzeko une oro eta guztien begietara.

5 Kontuan izan behar dugun garaiko psikariatuentzat emakumeak patologiarik arxiakak —eta ez soilik «gene gorria» zutenak—, behe-mailako izatekoak eta patologiatik eta ume-izeneratik gertu dauden pertsonak zirela, eta horrek beharrezkoa egiten zuela emakumeen sena, jarrerak eta partehartzea arautzea, nazio-katolizismoa bezalako jendarte ustiez zibiltzatu. Ongi moldatzeako, bai Estatuak, bai gizonezkoek jarri behar dizkieten mugak behar dituzte. Adingabeak eta heldugabeak dira beti (Vallejo eta Martínez, 1939: 398-399, *cfr.* in Bandrés eta Llavona, 1996: 8).

Ezin zinen emakumea izan, emakumeekiko erakarpena sentitzen zenuelako. Eta gizonetzkoa ere ez zinen, nahiz eta «eutsi ezinezko erakarpena sentitu emakumeekiko eta zure jarrerara zein joera gizonetzkoen bera izan». Frankismoaren oinarritzko zutabe bat nabarmen uzten ari zirenen, generoaren eta sexualitatearen antolaketa. Bikoteetan oinarritutako munduan, onak eta gaiztoak, justuak eta bekatariak, nazionalak eta gorriak bikoteak zeuden bezala, mundu horren antolakuntza ere beste biko haue-tan banatzen zen: emakumeak eta gizonak, heterosexuallak eta homosexuallak. Alde batean ziren etxeko buruak eta amak (alegia, jendartaren zutoinak); eta beste aldean, gaizkileak, pertsona arriskutsuak eta emagalduak. Badakigu garaiaren ondorengo urteetan eta gerra ostean, erregimenak ez ziola garrantzi handirik eman homosexualitateari. Izan ere, arduratuago zegoen gerraosteari aurre egiten, eta eliza katolikoren esku utzi zuen zeregin hori, moralaren aurkako jokoerak kontrolatzea (Bastida Frejedo, 1986: 185). Dena dela, 50eko hamarkadan moralaren eta sexualitatearen izu-ikara sortu zen, eta homosexualitatea arautzea⁶ ekarri zuen. Guztiz para-

6 Egin dezagun Espainiako homosexualitatearen arauzeari buruzko alpainen bat. Napoleonen oinordekiz zuen eta Primo de Riverak berriitu zuen Zigor Kodean (1928), homosexualitatea eta lesbianismoa zuzentasunaren aurkako delintuzat eta eskandalo publikoratz hartzen ziren. Ondoren, II. Errepublikan (1932) Zigor Kodea berriitu eta kendu egin zen Primo de Riveraren alpu hori. Hala ere, Alfer eta Gaizkileen lege bat (1933) susatu zen, eta frankismoaren garaian (1954), homosexualitatea berriro bertan sartzeko egokitu zuten. Espiritutuki adierazten zen homosexualitatea jendartarentzat arrisku bat zela eta Estatuaren esku zegoen pertsona «arriskutsu» horiek, bai homosexualak, bai gaizkileak, baita proxenetak ere, zentrotan sartzea eta kontrolatzea. Lege horren ondoren, 1970. urtean, Arriskua eta Jendartera Errehabilitatzeko Legea (LPRS) etorri zen, aurreproiektuak aldatuta asko izan zituztena. Testu horrek ere pertsona arriskutsuak hartzen zituen homosexualak, «homosexual» hitza «ekinza homosexualak praktikatzen dituzten pertsonak» erreferentziagatik ordezkatzu eta hautentzat zainitza- eta kontrol-neurriak antolatuz (Pérez Canovas, 1996: 20; Alaga eta Cortés, 1997: 29).

noidea zen kontrol horrek, 1954. urtean, Alfer eta Gaizkileen Legean homosexualitatea zigortzea ekarri zuen, eta 1970. urteko Arriskua eta Jendartera Errehabilitatzeko Legea sustatzea. Erregimena, «jendartarentzat arriskutsuak», alferrak eta gaizkileak ziren pertsonekin, handa, zorrigaitza ekartzen zutenekin, edota haien jarrerekin jada, jabetzaren, bizitzaren edota moralaren oinarritzko arauak hausten zituzten pertsonekin bereziki kezkatutrik zegoen une batean bizi zinen. Zigoritu zintuen epailea arrisku horietaz teorizatu eta idatzi zuen bera izan zen, Antonio Sabater Tomas, *homosexualismoaren kutsa-kortasunaz* zeharo arduratuta zebilena. Homosexualen eta lesbianen arteko ezberdintasunak «ezagutzen» zintuen gizona zen, eta larrituta zebilen lesbianismoaren gorakadarekin:

(...) Consideramos, no obstante, que esta pasión lesbiana debe ser objeto de especial preocupación, tanto porque se viene notando un notorio aumento de la misma, como porque no pocas veces ha conducido a comisión de delitos sobre las buenas costumbres, la propiedad y la vida (1962: 208; 1972: 147).

(...) Hala ere, gure ustez, lesbiana izaerako grina bereziki arduratzeko modukoa da, bai azken aldiaren grina horren igoera nabaria delako, baita sarritan ohitura onen, jabetzaren eta bizitzaren aurkako delintuak gauzatzeraz bulettatzen duelako (1962: 208; 1972: 147).

Ez pentsa Sabater sexualitatean aditua zenik, are gutxiago bere konplize faxistak. Izan ere, adierak nahasten zituzten, patologiak egotzi, elkartze automatikoak egin, *you name it!* Badakigu emakumeen trabestismoa bereziki gogor zigortuta egon zela, batik bat frankismoaren

azken garaian. Hori dela eta, Carabanchel kartzelari, «La Pajarera» izenez ezagutzen den hegalean amaitu zuten trabesti askok. Era beren, nahaste handia zegoen bisexualitatea zer zen ulertzerako orduan, eta trabestismo-tzat hartzen zen sarritan. Emakumeen maskulinitatea, ordea, beti lesbianismoarekin lotzen zen? Gogoan izan behar dugu, gaur egungo garaiaarekin alderatuz, bazterreko-sexualitateak batzen zituen aterpea zela homosexualitatea.

Antonio Vallejo-Nájera eta Juan José López Iborrek ordezkatzeko zuten garai horretan nagusitzen zen psikiatria eredu, eta horiek ikertu zuten, hain zuen ere, marxismoaren, homosexualitatearen eta intersexualitatearen jatorria. Esperimentuak egin zituzten lobotomiarekin, electroshock bidez jarriera aldatzeko terapiekin, eta baita eugenesia helburu zuten kastrozio terapeutikoekin ere (Preclado, 2008: 29). Kasu horietan guztietan, sexualitate-desbideratzeak beldur higienista bat zekarren, familliaren barruko eginbeharrak betetzeari uztea, pertsonen gainbehera zekarren, arau naturalekin hautsi ez ezik, jainkotiarrekin ere hausten zutelako, eta, beraz, Estatuarekin. Zu arazo bat zinen. Ez soilik gizonetzkozatz ez zintuztelako onartzen, baita ez zinelako ez ama, ez emazte, ezta erregimenarentzat behar bezala lan egiten zuen pertsona bat ere. Bai psikiatriak, bai erlijioak, baita Estatuak ere desbideratuztat zintuzten.

Gregorio Marañonen lanetan, besteren artean, jada nabaria zen emakumeen maskulinitateari buruzko interes, Roig-ek aipatzen duen moduan: «(...) maskulinitateari lotutako lanbideak soilik sexualki ohiz kanpokoak diren emakumeentzat egon behar lukete eskuragarri

7 Ikus, adibidez, Sabater Tomassen 1962. eta 1972. urteetako testuak, edota Hans Von Henting alemaniararen *La criminalidad de la mujer lesbica* (1975) izenburuko testuaren itzulpena.

(suposatzen dugu genero-joeraz ari dela eta ez sexualitate-joeraz), beren adimen bikainarengatik «maskulinitate» traza «kementsuak» erakusten baitituzte» (Roig, 1986: 267, in Sentamans, 2008: 166). Emakumeen maskulinitatea ez zen ezezaguna, ez zen ukatzen zen zerbait: Gerra Zibilaren aurreko modak lortu zuen jada erabilerari berriak eta janzkerak hedatzea, maskulinitate erreferentzia baikor eta apurtzaile gisa (Sentamans, 2007). Era berean, baziren erreferentzia oso ezkorrak ere, zeinek buruz behera jarritako inguruko teoretari oinarrituta 1941. urtean atletismoa debekatzeko eragin baitzuten, «emakumeak maskulinotze» aren beldurrak eraginda (García Bonafé, 1992, in Sentamans, 2008: 162). Maskulinotzat hartzen ziren espazioetan eta betebeharretan emakumeek parte hartzeak emakumeen «izaera femeninoa» nizan zezakeen eraginak kezka sortzen zuen, homosexualitatea eta maskulinitatea betiereko loturik, eta gorputzean «itsusitasun» moduan irakurriko balira bezala (Halberstam, 2007: 100).

M.E., emakume maskulino eta trabestitu bezala hartzeaz gain (hau da, emakume itsusia edota gizonetzkoa izan ezin duena), pentsa dezagun behin eta berriz jarriera zitala zuen sudaka⁸ bat zinela, zurrutari arazo-sortzailea, eta zure oldarkeriak kontrolatzeko Estatuak esku hartu behar izaten zuela. Txostenak testigutza hau dakar:

[...] Lleva residiendo en esta ciudad y domicilio indicado desde el año 1964, procedentes de Montevideo (Uruguay).

8 Sudaka, jitha, mairua, beltza, etab. Sarritan, erabakigarria izaten da desbideratutako sexualitateen inguruko irakurketan arraza uzartzea eta pertsona horien jendarte, arraza, moral eta sexualitate galeraren inguruko irizki arrazistak batzea, arrazari lotutako arriskugarratasuna eta galeraren inguruko arrazoi bideak sortzeko (Ikus, adibidez, Somerville, 2000: 16-38).

guay) y durante su permanencia en ésta (Hospital), dejó bastante que desear ya que su tendencia es la de los hombres, siendo detenida sobre el 10 de marzo por tal circunstancia.

(...) Montevideotik (Uruguay) etorrita, 1964. urtetik hona, aipaturiko helbidean eta hirian bizi da. Bertan (Hospital) egindako egonaldia kaskarra izan zen, gizonetzkoen joerak zituelako, eta hori dela eta, martxoaren 10ean atxilotu zuten.

Clark, M.E. eta ni gaur egungo Madriletik aterako bagina, besteen begiradapetik honako galbabe hauek zeharkatuko lukete gure maskulinitatea: klase-, arraza, etnia-, erlijio-, eginbehar-, adin-, edertasun- eta pertsonalitate-esperientzia zein itxaropenen arabera (Halberstam, 2007: 198). Garrantzia izango luke Clark eta ni profesional liberalak izateak, zuriak, klase ertainekoak, itxuraz minusbaliotasunik gabeak eta kaletarreak, gazteizat hartuak (gure itxuraren eraginez zehaztu ezin den adinekoak), eta sinesgarria izan daitekeen maskulinitatedunak, emakumetzat esleituriko gorputzek izan ditzaiketen zirrikituekin. Eta hala ere, abantailazko egoeran izanda ere, zalantzan jar daitezkeen lehiakideak (profesionalak?) gara, gure denbora- eta espazio-antolamendua ez dira eredu heteroarautura moldatzen; generoaren eta sexualitatearen aurrean dugun jarrera ambigua jasan ezina zaie pertsona askori, kronologikoki bat etortzen zaigun adinean ezin gaituztelako atzeman. Era bereko eta adar askotariko zalantzak gorpuzten ditugu.

Bitartean, M.E., zure azentuat, azalaren koloreak edota egoteko moduak ez bazintuzte salatuko, trabelo suda-ka bat izaten jarraituko zenuke. Ez zenuke ez lanpostu ez irabazirik. Langile-klaseari lotutako maskulinitatea

hezurramituz, erraza zinen antzematen. Gainera, prostituzioarekin⁹, maltzurrekin eta gaizkileekin erraz parekatzeko modukoa zinen, testuinguru hartan jendartearentzat arriskutsutzat zer hartzen zen kontuan hartuz. Zure jarrera mespretxagarria zela, arazoetan sartzen zinenela («eskandaluak bilatu eta edari alkoholodun gehiegi edateagatik jarrera okerrak ikusita») eta jendarretik behin eta berriz desbideratzen zinela esaten digu zure txostenak. Zure txosteneko aipu batek honela dio:

Posiblemente se aprovecha también de sus tendencias homosexuales desde el punto de vista económico, y así nos dice que poco antes de ingresar en prisión se ganó 100 pesetas por un beso solicitado por una prostituta.

Ziur asko, ikuspegi ekonomikotik ere balaitzen da bere joera homosexualaz, eta hala esaten digu, kartzelara sartzeaz zela emagaldi batek eskatutako muxu baten truke 100 pezeta irabazi zituela.

Ezberdintasun horiek eta gehiago izan arren, denboraren eta espazioaren mugak gaindituz, egokitu gabeko pertsonaia bezala hartzen gaituzte hirurok, maskulinitatearen bertsio ezberdinak gorpuzten ditugun trabes-ti iruzurtiak. Naturalizat eta logikotizat ezartzen diren arauak hausten ari gara. Zehaztu ezin denaren lekuan gaude: bikote parametroetan, ez gara jaiotzez gizontzat ezarritakoak, baina ezia emakumeak ere. Generoa desordematen dugu, sexualitatea, adina, klase soziala, arraza, jendarte-lehia eta lehia profesionala, edertasuna, osasun mentala... Zure maskulinitatearengatik zigortu zin-

9 Bixia da: badirudi, gaur egun, ahaztu egin garela gutxiengo sexualer, aliatu izan ditzaizkegun emagalduez, papirik gabeez, zeropositiboez, eta antzeko bazterreko pertsoenez.

tuzten, arrisksutsutzat jotzen zaituztelako. Horrek ekarri zuen zu atxilotzea, maskulinitatea eta emakumeengana-ko erakarpena elkartzea une oro arrisksutsutzat eta delitu egiletzat hartzen baitziren. Zure sedukzio-lanek baiezta-tzen dute zure potentzial endekatzailea.

Frantsismoan, emakumei zuzendutako errepresio-ekin-tza ohiko bat presoak behin eta berriz lekualdatzean zetzan, eta zuk Bartzelona eta Segoviako kartzeletatik bidaiatu ze-nuen. Han, honakoak esaten zituzten zutaz:

Su clara, definida y manifiesta tendencia a la homosexualidad, la hacen particularmente peligrosa para convivir con las jóvenes acogidas a este patronato, a las que ya ha pretendido hacer objeto de sus prácticas homosexuales en los escasos días que lleva internada. Tal peligrosidad [...] es lo que nos hace poner a la referida joven a disposición de ese Ilmo. Juzgado Especial, máximo, cuando, a mayor abundamiento, nuestros servicios de readaptación nos informan en sentido absolutamente negativo en cuanto a la posibilidad de reeducación de ésta joven, dada su edad y características.

Duen joera homosexual argia, definitua eta aitortua dela eta, bereziki arrisksutsua da patronatu honetan jasotako gazteekin elkarbizitzeko. Bertan daramazkin egun gutxietan jada saiatu baita gazteak bere praktika homosexualetara lotzen. Arriskugarritasun horrek (...) garamatza, alpaturiko gaztea Epaitegi Berezia deritzonaren esku jartzera. Are gehiago, gure berregokitzapen-zerbitzuen arabera, gazte honen adina eta ezaugarriak kon-tuan hartuta, berretzeko aukerarik ez dagoenean.

Argi dago beste emakume batzuk erakartzen zentituela, M.E., zure potentzial arrisksutsua oso erakargarria egin-

go zitzaielako. Gainera, emakume guztiak dute lesbia-nismorako joera (Sabater Tomas, 1962: 210), beraz, zure presentzia lebergaiari sua ematea bezala da. Zurearekin jarraitzea, heldua izan arren gazte itxura izatea eta zure maskulinitatea erabiltzen dituzte, errepresio-ekintzekin ere «zure arazoa» ez dela aldatuko agerian uzteko. Argi adierazten dute «arriskugarritasuna» bizitzaren une ba-tean gorpuzten den indar-egoera bat dela, zelalatu, zigor-tu eta bideratu behar dena.

Durante su estancia en prisión ha habido que aislarla y hacer que vaya al patio a las horas de paseo, o bien sola o bien muy vigilada, pues persigue sexualmente a las demás reclusas.

Beste presoak sexualki jazartzen dituzenez, kartzelan egon den bitartean bakartu egin dute, eta patiora, pasea-tze-orduetan atera izan da, bakarrik edota oso ondo ze-laturrik.

Electroshock-ak ekidin ote zenituen galdetzen diot ni-re buruari. Kartzelan sartu ordez eroetxean sartzea, zure maskulinitatearengatik; erotzat beharrean, gaitzikiletzat hartzeagatik izan ote zen, edota ausazkoa izan ote zen. Hala ere, badakigu Valentziako Hospital del Carmen-en «nerbioengatik» 8 hilabetez egon zinela ere. Ez dakigu zer gertatuko zen bertan. Ezta «nerbioengatik» ekzer esan nahi duen ere. Ez dakigu, garaiko medikuntzaren joera jarraituz, zure desbideratzea bertan zuzendu zezaketela pentsatu ote zuten edota preso eta homofobia jarraituak zuzan eragina izan ote zuten, tuitik ere ez. Ospitalea, kar-tzela eta hainbat erakunde aldirikatu zenituen ia bi urtean, zure aurkako «bilatze eta atzitze» agindua eman zen... Agintaritza ekidinez, zure bizitza egiten saiatzen zinen.

Diktaturak bere estrategiak zituen eta badakigu errepresioa espezializatua zegoela: erregimenak kartzela-zigorra agintzen zuen homosexual aktiboentzat edo pasiboentzat, emakume gorrientzat —gorriekin elkartu edo parte hartu zutenak, edota gorrien seniarlekoak— eta emagalduentzat. Gogora dezagun emakumeak izan zirela gehiengoa «erregimena begi txarrez ikusi» eta horregatik zigortuak. Gainera, Estatuak, Elizak eta Psikiatriak elkarrekin sinkronizatuta hartu zuten emakumeen sexualitatea eta jarrera oztana zelatzeko lana. Zu edo ni bezalako zenbat M.E. pasa ote dira terapia higuingarrietatik edota mementoko apaizaren epaia jasotzetik? Frankismoaren ordena ordezkatzeko zutenentzat, jasezina zen zure maskulinitatea. Eta izaten jarraitzen du. Denak kezkatzen ditu maskulinitate honek, zure garaian eta gaur egun. Sarritan, azalpen modura erabiltzen zituzten gizonezkoekin esperientzia txarren bat eduki izana, gene-akatsen bat, edota gertakari traumatiko batek gizonezkoekin harrenantzeari uko egitea eragin izana (Von Henning, 1975; Sabater Tomas, 1962). Horretaz gain, homosexualekin denbora gehiegi pasatuz gero, haiek bezalako bihurtzen zirela zioten; izan ere, emakume rola ukatzea edota sexu-gogoa piztea homosexualitatearen ezaugarri oso kutsakorrek ziren. Zure iraganaz honako hau diote argumentu-ildoa horretan:

Ya a los doce años tiene María Elena sus primeras relaciones sexuales, en Montevideo, con una niña. Con anterioridad a esa edad jamás, en sus juegos presenté tendencias femeninas. En efecto no le gustaban las muñecas ni jugar a cocinitas, etc. Ante el advenimiento de la pubertad sus inclinaciones lesbianas se acentúan y ha pretendido, muchas veces con éxito, a un gran número de mujeres.

Jada hamabi urterekin, María Elenak lehenbiziko harreman sexualak izan zituen neskatxa batekin, Montevideo. Gazteago zenean, inoiz ez zuen bere jolasetan joera femeninoarik azaldu. Hain zuzen, ez zitzaizkion panpina gustatzen, ezta sukalde-jolasak ere, etab. Nerabezararen atarian, lesbiana izaterako joerak nabarmendu egin zitzaizkion, eta emakume asko gorriatu izan zituen, sarritan arrakastaz.

Pentsa dezakegu zure haurtzaroz egindako galderak genero femeninoaren rolera ez atxikitzea eta rol horrekin ados ez egotea azpimarratzeko zirela. Maskulinitatearen eta lesbianismoaren arteko loturaren proba ageria, bai-na baita kriminalitatearen eta patologiarene artekoa ere. Clarki eta niri, edota nire inguruko emakume biologikoetako askori, lesbianak izan edo ez, maskulinoak edo ez, galdetuz gero, ukapenezko edota kritikazko historiak azalduko ziren «emakumeenak diren jolas»-en inguruan. Batzuk mari-mutilak izan gara eta, hazi garenean, *femme* arrakastatsuak edota *butch* eta *trans* jarraipenen kanpoan edo barruan maskulinitate mota ezberdinak gorpuztu ditugunak. Zer frogatzen du gure iraganak? Baita al digu zein zer izango den kontrolatzeko? Ematen al digu neskekin gehiago norik ligatuko duen jakiteko informaziorik? Esaten al digu erabat huts egindako jendartera-zaiakera bat al den? Eta zer zigorretara arriskatu garen? Adierazten al digu zer izango den patologikoa eta medikalizatua?

Nire txikitako lagunen amentzat, nire maskulinitatea haien alabaxo lirainak perberti zitzakeen arrisku-adierazle argia zen. Nire ile motza, nire jarrera eta gure haur-jolasetan beti aita, semea edo senarra izateko aukeratzin mindutela, adierazle ziren neskatila horien gonetan eta buruetan sar nintekeela pentsatzeko. Oraindik Oke-

rrago, haiek hori desiratu ahal zutela. Frankismo garaiko erregimenaren konplize eta borroeroek argi zuten bat zirela maskulinitatea eta sexu-harraparria izatea, eta horrek zaila egiten zuen Maria Elena N.G. emakumeentzako kartzela batean sartzea bera ere. Genero-mugetan ezleku batean zinen, M.F. Ez zara gizonezkoa, gizonezko itxurak egiteagatik zigortzen zaituzte, baina ezin zara emakumeekin egon, kartzelako emakumeentzat eta zure buaruarentzat arriskutsua litzatekeelako.

Zuk pentsatzen edo nahi zenuenaren inguruan ezer gutxi dio zure txostenak, baina zure atzizalileentzat, zintzotasunez hitz egiten duen pertsona zarela eta zuretzat «emakume izatea» nahi ez duzun zerbait dela ageri da.

Todo esto lo confiesa la informada con una gran sinceridad y es más, nos pide que la libremos del tormento de ser mujer.

Hau guztia zintzotasunez aitortu du eta, are gehiago, emakumea izatearen oinazetik askatzeko eskatzen digu.

Nork daki esan zenituenetatik eta gaitibusunean zeunden bitartean esatera ausartu zinenetatik, zenbat gauza agertzen diren txostenean. Hala ere, arriska gaitzke esatera garaian izan behar zen moduko emakume inuditzeari edota izateari uko egiten zeniola, eta, zalan-tzarik gabe, zure bizi-aukerek moralaren, osasunaren eta duinatasunaren mugak zeharkatzen ari zarela.

Zure sexualitatea garaiko gizonezkoena bezala kontatzen dute: «behin hasita gelditu ezin den uholdea», sexualki esplizitua eta gainezka egiten duena. Bai fisikoki, bai psikologikoki ikertu behar den pertsona desbideratua zara. Izan ere, funtzionarioek zure gorputza behatu dute, zure klitoria eta sexua neurtuz —garaian Ohlkoak

ziren neurriak—, anormaltasunen bat bilatzeko edota zure jarrerari azalpen bat emateko fisiologiaren bidez.

Desde el punto de vista somático se trata de una mujer de senos poco desarrollados, pero con una conformación normal de su aparato sexual. El clitoris es de un tamaño normal. Sin embargo para un diagnóstico exacto de su síndrome sería necesaria la comprobación del sexo cromosómico. Esto no hemos podido hacerlo. De todas maneras creemos que no se trata de una desviación cromosómica sino de una desviación psíquica en que una vivencia ha desviado el curso normal de la libido.

Ikuspegi somatikotik, bularrak gutxi garatutako emakumea da, baina sexu-aparatuaren osasera normala duena. Klitoria tamaina normalekoa da. Dena den, bere sindromearen diagnosi zehatza jakiteko, beharrezkoa izango litzateke kromosomen araberako sexu-egiaztapen bat. Hori ezin izan dugu egin. Hala ere, ez dugu usteko kromosoma bidezko desbideratze bat denik, batzilik eta desbideratze psikiko bat, non bizipenen batek libidoaren ibilbide normala desbideratu baitu.

Bagenekien aztertu egin zintuztela, zure itxura eta arropa («galtzetinak eta galtzontziloak erabiltzen dituz») aspertu arte ikertu zituztela eta, orain, badakigu zure gorputza eta zure formak neurtzeko biluztu egin zintuztela ere. Ixuraz normala zirudien gorputza zenuela argi ikusteak («Klitoriak neurri normala dauka») haren genotipoa eta ingurunearen eragina behatzearen beharra azaleratzen zuen, bioemakume bat jarrera hori izatera zerik eramaten zuen jakiteko. Gaur egun badirudi horrelakorik ezingo litzatekeela pasa, iraganekoa dela jarreraren aurreasmatzaille moduan gorputzei egiten zaien

zainketa; eta nire buruari galdetzen diot zainketa horrek ba ote duen, gaur egun, emakume maskulinoen, gizezko transexualen, pertsona intersexualen... gorputzek sortzen duten jakin-minaren antzik. Gimnasioan, Clarken gorputz landua begiraden erdigunea da, emakumea edo gizonetzkoa den ez jakitea jasan ezin duten pertsonen begiradak jasotzen ditu haren muskulu eta atleta-gorputzak. Begiratuko al luke Clarkek eta nik klitoria ote daukagun? Gure jarretan, klitoria ren neurriak eragiten ote duen ikertzen salatuko lirake? Benetan aldatu al da maskulinitatea desbideratze-mota bat bezala ulertzeko joera? Jarraitzen al dugu normaltasunetik kanpo dauden jarretrak gorputzarekin lotzen? Hemen, ohiko beldurra agertzen da sexualitate maskulino «normala» zalantzan jartzen duen kitori erraldoiarekiko —hortzak dituen aluaren «lehengusua»—. Emakume normalei ez dagokiena. Eta ez zaigu beste aukerarik gelditzen mundaurekiko bikote-ikuspegi horretan.

Arropa gabe eta biluzik irudikatzen zaitut frankismo garaiko zapaltzaileen begiradapean, eta hotzikara batek zeharkatzen nau. Nire garaira begira jarrita, nola sentitzen ote dira (gara) «desbideratutako sexualitatea» duten (dugun) pertsonak, biluztea eskatzen duten medikuntza-protokolo, lege-prozedura edo jendarte-jardueretan (adibidez, fisioterapeutarengana joaterakoan); edota genero-esleipen zorrotzak dituzten arropak jantzi behar dituztenean (ditugunean); edota gizonetzkoena edo emakumezkoena den jarraera bat garatu behar dutenean (dugunean); edota gure aukeren azarna eta orbainak erakutsi eta besteen begiradapean jarri behar dutenean (dugunean)? Gaur egun, erregistroan izena aldatzerakoan, transexualak gorputz biluzia erakustera behartzen dituztela irakurtzen dut eta haserretu egiten naiz... Uko egite eta otzantasun-ariketetan pentsa-

tzen hasten naiz. Ezarri ahal dizkiguten zigorretan. Nork bere enbarazutik eta ausardiarik, «batzuk» ordezkaitzen dituzten begiraden desadostasunari eta gaitzespenari aurre egin behar diegu, «besteak» baino ezin gaitzezke-lako izan.

Horrela, zure «sexu-aparatu femenino»-ak normala ez den libidoa agertzen duenez, zure bilakaeraren ikerketa ez da fisikoa bakarrik, azterketa psikiatriko batek lagundua baizik. Zure jarretrak, patologikoa izan behar zuen nahitaez, eta azaldu beharra zegoen: «Bere adimena batezbestekoaren artean dago, eta oroimen handia du. Ez da zantzu psikotikorik antzematen». Diagnosi-probetan nola moldatzen zinen ere azaltzen da:

Con la prueba proyectiva de Roschar, prueba consistente en mostrar al probado 10 láminas con manchas de tinta, prueba también donde la personalidad se proyecta, pues en ella y según las respuestas no se refleja tan solo el objeto percibido, sino también el sujeto percibiente; María Elena percibe en muchísimas el aparato sexual femenino. Estas percepciones no son propias de una mujer con tendencias normales de la libido sino de una desviada.

Roschar-en proiektu-proban, pertsonalitatea proiektatzen da probatzaileari tinta-mantxadun 10 lamina era-katsiz eta, erantzunen arabera, ez da soilik hautemardako objektua islatzen, baizik eta hautematen duen subjektua ere bai. Maria Elenak, askotan, sexu-aparatu femeninoa hautematen du. Hautemate horiek ez dira libido-joera normala duten emakume batenak, baizik eta desbideratu batenak.

Zalantza izpirrik gabe, «normalak» diren emakumeek ez dute beren «sexu-apatatu femeninoa» ikusten edota irudikatu ere egiten, ez tintaz egindako marrazki batean, ez beren fantasietan, ezta eguneroko bizitzan ere. Irudikatu ahal izatea patologia zantzu bat zen. Eta, pentsatzen jartzen naiz ezagutzen ditudan emakumeek, nire lagunak edota bigarren hezkuntzako nire ikasleek aluaren forma nolakoa den ba ote dakiten edota marraztu eta zatiak ezberdintzen jakingo ote luketen. Ala «normalak» dira, eta soilik desbideratuei interesatzen zaizkien gai hauek «ez dituzte zertan jakin»? Norberaren gorputza ezagutzeak eta gozatzeak, beharrianak haragiztatzeak, munduan kokatzeko leku bat edukitzea eskatzen du. Sarrrian, heteroarautzearen pisuari, elkarrekin aurre egiteko, zu bezalakoak aurkitzeko beharra sortzen duen norberaren lekua. Horregatik, M.E., gusatzen zait pen-tsatzea sare propioa zenuela, zuk aukeratutako genero-gakoan ulertzen zintuen jende ezberdinarekin hitz egiten eta ateratzen zirela.

Denboran bidaiatuz, gaur bezalako larunbat batean, baina 1968. urtea izanik, Clark eta ni zurekin kalera atera eta zure eguneroko bizitza partekatuko bagenu, pentsatzen dut zure begiekin ikusiko nukeela frankismo garai-ko errepresioari nola izkin egin. Zer hizkuntza erabiltzen duzun zutaz eta besteaz hitz egiteko, jendeak nola begiratzen zaituen, «mutli»tzat ikusia izateko nola moldatzen zaren, zure lagunak ezagutu, bizirautean laguntzen dizuten sare ia klandestinoetara sartu. Ezagutuko ote zenuen garaiko argota? Honako hauek etortzen zaizkit burura, adibidez: Malagako emakumeen kartzelatan zegoen «ezkontza-gela» izeneko hegala zehatza (Osborne, 2009); «gaietan sartuta egotea», homosexualez, trabestiez edota lesbianeaz hitz egiteko (Pineda, 2008); «mari-mutilak», emakume maskulino lesbianeaz hitz egiteko (Pi-

neda, 2008; Albarracín, 2008); «liburugileak eta komikiak» (Albarracín, 2008) edota «irinarek sindikatua»¹⁰, kartzelatan lesbianak izendatzeko. Guk hirurok, Clark, M.E. eta nik, alarma gorria piztuko genuke araua hausten zuen oro erreprimitera, giltzatzera eta seinaltzera setatua zegoen erregimen batean; are asaldura handiagoa sortzen lagunduko genukeelakoan nago emakumeentzat berriazko lekuak eta rolak zituen, trabestismo femeninoa basati erreprimitzen zuen, gizonetzkoen homosexualitate, aktibo edo pasibo bezala sailkatzen berezitua zegoen eta lesbianismoarekin gero eta kezkatuago zegoen erregimenean. Edo, agian, baliteke horren mugatua zegoen gune historiko eta politikoan, hirurok sinestarragoak izatea, gizonetako «trabelo» en artean arrakasta izatea eta askatasun handiagoz gozatzea.

Gure familiek, gure lan-eremuek eta jendarteko edozein gunetan ikusten gaituen jendeak nola hartzen gaituzten pentsatzen dut. Garai hartan, 60ko hamarkada amaieran, zure gurasoek babestuko ote zintuzten? Edo-ta, egungo garaian bazina, jendarte-aldaketaren karian, zure gurasoek aukeratuko ote lukete zu babestea? Zure aukerak baztertzea behartzen zuten aginte-arauak onartzen zituzten, edo haustera ausartu eta beren babesa erakutsi ote zizuten? Hospital-etako Guardia Zibilean jakin dugu zure gurasoek eskutitz bat bidali zutela «1967. urteko abenduaren 30ean etxea utzi zuenetik berririk ez zutela» baieztauz. Urte zahar egunaren bezperan alde egin zenuen, berriz ez itzultzeko. Atxilotu baino hiru hilabete

10 Fernando Olmeda-k esan zuen «irinarek sindikatua» terminoa kartzelatan lesbianak izendatzeko erabiltzen zela, baina ez zekiela kartzelarik kanpo erabiltzen ote zen. Irizkin hori egin zuen 2008. urteko maiatzaren 9-11 egunetan, Arte Ederretako Zirkuluan memoria historikoari buruz antolatutako jardunaldietan: «Las "otras" víctimas de la Dictadura», III: *Homosexualities y Transsexuales en el franquismo y la transición*.

lehenago. Zure biogorputzaren eta biografiaren mugetatik kanpo bizitzeko egin behar izan al zenuen ihes? Nola abileziak nola sumatzen ziren, zure inguruan lasai mugitzeko. Gure gorputzek agerian uzten dizkiguten pitzadurrek, bai orain eta baita lehen ere, burru-osasun eta lehia profesionalaren karian epaituak izatera eramaten gaituzte. Zuri ere, Clark eta niri bezala, galdetzen al zizuten zergatik moztzen duzun ilea horrela, zergatik aukeratzten dituzun itsusiago egiten zaituzten arropa eta itxura horiek, egokiago zaizun eta politagoa den zerbait —femeninoago esan nahi dute— aukeratu dezakezunean?

Azalekoagoa izanda, gure garaian irudikatuko zintuzket, eta uste dut gaur arratsaldean Clark eta zurekin erosketak egitera joatea gustatuko lizaidakeela. Arratsalde zoragarria izango zen, Nacional Geographic-ek grabatzeke modukoa. «Tutzi»-koadrila (etorkinak, gure berzko ingurunean) bagina bezala aterako ginateteke, gure genero-aukerak jantzteko lanean. Zuk ezagutzen ez zenuen hainbesteko aukerekin eta kontsumismoarekin entretentutako zinateke. Laster lur hartu beharko genuke, gizonzkoentzako arropa-denda bakoitzean neurri egoikiak lortzeko adetasun-maila ezberdineko jendearekin borrokatu eta eztabaidatu behar izan ondoren. «Emakumeen gunea beste solairu batean dago»ela, gure oin-neurria txikiegia dela edota alkandora hori handiegia dela behin eta bertiz errepikatzen digun salzailearekin eztabaidatu beharko genuke. Barre egingo genuke, gure koadrila indargune bat izango litzateke saltzaille horrek irudikatzen duen arauaren aurtean, eta XS neurriaren erregeak izango ginateteke, 39 neurriko zapatak aurkitzen dituzten abentura zaleak, galtza bakero eta gorbatarik onenekin. Askoz bizigariagoa da horrela, umorea estrategiatzat frustrazioari indarra kentzeko eta egunero arau

berdinei aurre egin beharrak sortzen duen nekea arintzeko.

Arratsaldeari amaiera emateko, gure ile-apaintzaile marrika gustukoena bisitatuko genuke, Mauro. Gure maskulinitatearekin ondo pasatzen du eta Argentinako bere eskolaz hitz egiten digu Maurok. Guztiek emakume jairo zela jakin arren, futbolearen jolasten onena zen mutil hartaz. Apaindu egingo gintuzke, oso polit ikusarazi eta, gau hartan ligation ez bagenuen ez gennuela inoiz ligation esan ere bai, oso femeninoa den lagun bat aurkeztu ahal digula gogoraraziz. Bakoitza bere kontuekin. Gau horretan gure lagunekin aterako ginateteke, ezinezko gauzei buruz hitz egingo genuke eta ziur, ziur batzuen eta bestearen artean onarpen ezberdinak sortuko genituzkeela.

Ez zait ahazten Alfer eta Gaizkileen Legean oinarritutako erabakiz 127 egun eta urte bat arteko espetxeratzea, bi urtez Bartzelonan bizitzeko debekua eta bi urteko zaintza inposatu zizutela. 1969. urteko ekainaren 20an, zure badaezpadako kartzelaratzea agindu zutenean, Alcazar de San Juan-eko kartzelara lekualdatu zintuzten. Bi egun soilik egin zenituen bertan; izan ere, 1969. urteko ekainaren 20an, Bartzelonako Alfer eta Gaizkileen epaitegiko Membrillera epaileak dekretuz agindu zuen «Gaizkileari ez dagokio ezarritako neurrien berrikusketa». Egun horretan bertan, 1969. urteko ekainaren 20an, atera zinen kartzelatik.

Ezin dut burutik kendu Clark eta ni garai horretan egon izan bagina, zigor berbera jasoko genukeela. Irudikatu besterik ezin dut egin nola aurre egin zenien frankismoaren garaiko erakundeei, inkisizio-begirada jarraituei, jendarte- eta polizia-kontrolari, polizia-etxera aurkeztu beharritari, erbesteratzeari, diagnostikoetara eta epaiei. Hau, aditu batek, Katalunian, errepresialiatuen inguruko kaxa horitu eta ahaztu batean aurkitu zuen txoste-

nean oinarrituta birsortutako istorio bat besterik ez da. Eta, hala ere, zu ezagutzek, M.E., lagundua, onartua eta nirea ere baden iraganarekin sentiarazi nau.

Zoritxarrez, zutaz dakigun bakarra poliziaen txosten hau da. Maria Elena N.G., baliteke oraindik bizirik egotea eta zure mailaleekin, zure basoerdiakin eta zure gauze-kin jarraitzea. Zure historiak maskulinitatea ikusgai jar-tzeak duen kostua erakustarazten du; emakume masku-linoen, trabestien edo transen (modu batean esatearren) bizitza ulertzen eta jendartean onartuak izan zarete-la azaleratzen laguntzen dit. Pertsona oso transgresore-tzat hartu izan zaituztete eta horrek agintarici hainbeste eragiten zien, zurea bezalako jarrerak zigortzeraino. Zure txostenari esker, jakin dezakegu frankismoak desafi-egin ziezaiokeen guztia zaindu beharra izan zuela. Bai-ta emakumeen sexualitatearen gizona arabera osatzen zela pentsatzetik haratago, askok berezko hizkuntza eta estrategiak zituzten bizipenak izan zituztela ere.

Zure historiak sexu- edota genero-aukera eta maskuli-nitatea ezberdintzen laguntzen dit, eta, era berean, mas-kulinitatea eta emakumeenganako erakarpena batera-tzen dituzten emakume-gorputzak, ezinbestean, zigorra merezi duten mehatxu moduan ikusten direla onartzen (Halberstam, 1998). Gaur egun bizi dugun jendarte-es-kubideen mentoarekiko beharrezko distantzia eta onarpena hartuz, gauza hauek asko ez direla aldatu esa-tera ausartuko naiz. Genero- eta sexualitate-transgresioa zigortzen jarraitzen dugun; bakoitzaren sexualitate-, ge-nero- eta sexu-joerak argi bereizita izatea gustatzen zai-gu. Nagusitzen/Gailentzen ez diren beste markulinitate moduei, beste feminitate moduei berriro balioa emateko ariketa egiteke dugu oraindik, izateko eta egoteko bes-te leku posibletan. Gaur egungo jendartea arduratzen da onargarriak diren gutxiengo sexualitate-ereduak era-

kustarazten. Zure txostenak eta zure historiak, nahitaez, zalantzan jartzera eramaten gaitu jendarte honetan ge-nero-ambiguotasuna eta genero-desoreka, emakume maskulinoak edota *transak* diren pertsonen onarpena zenbateraino aldatu den. Ez dugu ahaztu behar, oraindik ere, pertsona askok 18 urte izan arte itxaron behar dute-la identitate bat izateko; pertsona askok patologiarik ez dutela frogatu behar dutela, eta, gainera, DSM^{III} IV-ak eta legeak genero- eta sexualitate-aukeraren inguruan ezar-tzen dituen arauak jarraitu behar dituztela; jendarteak gure gorputzak eta sexualitateak kontrolatzen dituelarik bizi gara; eta, oraindik ere besteak bezain lehiakorrik, politak edota osasuntsuak garelako frogatu behar izaten dugula.

Zure historia, M.E., eta beste hainbat desbideraturera gogoratzea, irudikatzea eta birsortzea, ondoren gure bi-zipenekin lotzeko, erresistentzia-ekintza bat da. Ahaztea da faxismoaren proiektu politiko eta kulturalaren prak-tika ohikoa, irudimen posible bat kentzen digun egiteko modu koloniala, gure bizipena beti bakarra eta aurreka-ritik gabea dela sinestartzeko (Halberstam, 2007). M.E. ri buruzko historia hau irakurtzen ari zaren bitartean, etenik diren denbora eta leku *queeren* sorreran parte hartzen ari gara, non gure gorputzak modu bizigarri eta desiragarrian pentsatzeko aukera sortzen baita (Butler, 2006).

Gaur, larunbat gauetz, basoerdi batekin topa egiten dut zure alde, M.E. Zure alde eta egunero berrasmatzen garen trabelo, marika eta beste hainbat queer ezberdinen alde ere bai.

Bibliografía

- Albarracín, Marilde. 2008. «Libreras y tebeos: las voces de las lesbianas mayores», in *Lesbianas. Discursos y representaciones*. Raquel Platero (koord.), Bartzelona: Melusina, 191-212.
- Alaga, Juan Vicente eta Cortés, José Miguel. 1997. *Identidad y Diferencia sobre la cultura gay en España*. Bartzelona: Egales.
- Bandrés, Javier eta Llavona, Rafael. 1996. «La psicología en los campos de concentración de Franco». *Psicothema* 8 (1), 1-11.
- Bastida Freijedo, Francisco J. 1986. *Jueces y franquismo. El pensamiento político del Tribunal Supremo en la Dictadura*. Bartzelona: Ariel.
- Butler, Judith. 2006. *Deshecer el género*. Bartzelona: Paidós.
- García Bonafé, Mílagros. 1992. «Inicios del deporte femenino». *Ejercicio físico la práctica deportiva de las mujeres*, 18-23.
- Halberstam, Judith. 1998. *Female Masculinity*. Londres: Duke University Press.
- Halberstam, Judith. 2007. «Boys will be... boys?: Or, Transgender Feminism and Forgetful Fish», in *Intersections between feminist and queer theory*. Richardson, D.; MacLaughlin, J. eta M. E. Casey, New York: Palgrave McMillan, 97-115.
- Monferrer-Tomás, Jordi M. 2003. «La construcción de la protesta en el movimiento gay español: la Ley de Peligrosidad Social (1970) como factor precipitante de la acción colectiva». *REIS* 102, 171-204.
- Osborne, Raquel. 2009. *Apuntes sobre violencia de género*. Bartzelona: Bellaterra Edicions.
- Pérez Canovas, Nicolás. 1996. *Homosexualidad, homosexuales y uniones homosexuales en el Derecho español*. Granada: Comares.
- Pérez Sánchez, Gema. 2007. *Queer Transitions in Contemporary Spdnish Culture: From Franco to La Movida*. Albany, NY: State University of New York Press.
- Pineda Erdozía, Empar. 2008. «Mi pequeña historia del lesbianismo organizado en el movimiento feminista de nuestro país», in *Lesbianas. Discursos y representaciones*. Raquel Platero (koord.). Bartzelona: Melusina, 31-60.
- Preciado, Beatriz. 2008. *Testo yonqui*. Madrid: Espasa.
- Roig Castellanos, Mercedes. 1986. *A través de la prensa. La mujer en la Historia. Francia, Italia, España. Siglos XVIII-XX*. Madrid: Ministerio de Cultura. Instituto de la Mujer.
- Sabater Tomas, Antonio. 1962. *Gamborros, homosexuales, vagos y maleantes: estudio jurídico-sociológico*. Bartzelona: Hispano-Europa.
- Sabater Tomas, Antonio. 1972. *Peligrosidad Social y Delincuencia. Hip-pies - Beatniks - Vagos - Gamborros - Rufianes - Enfermos mentales - Alcohólicos - Toxicómanos - Proxénetas - Homosexuales - Prostitutas*. Madrid: Ediciones Nauta.
- Sentamans, Tatiana. 2007. *Virgos en acción, señoritas ante el obturador. La imagen de la mujer deportista en la fotografía documental de la España prebelica (1923-1936)*. Ikasketa Aurreratuena Diploma, Departamento de Escultura, Facultad de Bellas Artes San Carlos, Universidad Politécnica de Valencia. Urtarrila, 2007.
- Sentamans, Tatiana. 2008. «Dimes y diretes: Condicionamientos textuales de la fotografía de la mujer deportista española en la prensa gráfica (1923-1936)». (artikula on-line). *Extravio. Revista Electrónica de Literatura Comparada* 3. Universitat de Valencia (abenduak 11). Ikus: <http://www.uv.es/extravio>.
- Sommerville, Siobhan B. 2000. «Scientific racism and the invention of the homosexual body», in *Queering the color line. Race and the invention of homosexuality in American culture*. Siobhan B. Sommerville, Durham: Duke University Press, 16-38.
- Vallejo, Antonio eta Martínez, Eduardo. 1939. «Psiquismo del Fanatismo Marxista. Investigaciones Psicológicas en Marxistas Femeninos Delincuentes». *Revista Española de Medicina y Cirugía de Guerra*: 9, 398-413.
- Von Henning, Hans. 1975. *La criminalidad de la mujer lesbica. Estudios de psicología criminal*. Madrid: Espasa Calpe.